



DURANGALDEKO IKERLARI GAZTEEN SARIA 2022

OINARRIAK

1. Xedea eta diru laguntzaren helburua

Deialdi honek ikerlari gazteei zuzendutako Gerediaga Elkartearen lehiaketa arautzea du helburu.

Lehiaketa honen helburua Durangaldeko ondarea, historia, kultura eta gizartearen zaintza, ikerketa eta zabalpenarekiko zaletasuna eskualdeko gazteen artean bultzatzea da. Horretarako, euskarazko ikerketa, sormen eta dibulgazio lanak sustatu eta ezagutzera emango dira.

2. Lehiaketan aurkeztu daitezkeen lanak

Bakarkako lana edo talde lana izan daiteke. Lanen bat taldean aurkezten bada, taldeak pertsona bakarra aukeratuko du taldearen ordezkari.

Eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkez dezake.

Deialdira aurkezterakoan **kontuan izan**:

- Gaia: Durangaldean edo Durangaldeko edozein udalerritan kokatuta, edozein jakintza-arlotako ikerketa, sormen edo dibulgazio lana izan daiteke: historia, gizarte, kultura, hizkuntza, ekonomia, ondarea, lurraldea, turismoa, musika...
- Lana jatorrizkoa izan behar da.
- Euskaraz izango da.
- Eskatzailea, edo eskatzaile taldeko kide bat gutxienez, Durangaldean bizi edo ikastea ezinbesteko baldintza izango da.
- Zuzenean edo zeharka giza eskubideak urratzen dituen edozein proposamen kanpoan utziko da.
- Lehiaketaren ondoren, apirilaren 30ean, antolatuko diren topaketetan saridunak bere lana aurkezteko konpromisoa hartzen du.

Aurkeztuko diren lanak **4 formatu eta baldintza** hauetan izan ahalko dira:

- Artikulua: 2.000-4.000 berba
- Posterra: 52 zm x 86 cm
- Ikus-entzunezkoa: 4-8 minutu artean
- Podcasta: 10-20 minutu artean

Lanak hiru **kategoriaren** arabera sailkatuko dira, adin-tarteen arabera:

- 2004 eta 2006 urteen artean jaiotakoena, biak barne.
- 2003 eta 1998 urteen artean jaiotakoena, biak barne.
- 1997 eta 1992 urteen artean jaiotakoena, biak barne.

Taldeen kasuan, ez da beharrezkoa kide guztiak aipatutako jaiotza-urteen tarte barruan egotea, baina bai gehiengoa. Aurkeztutako kategoriaren adin-tartetik kanpo gelditzen diren taldekideek, gehienez ere, urtebetez gainditu dezakete erreferentziazko adin-tartea.

3. Lehiaketaren zenbatekoa

Kategoria bakoitzeko sariaren zenbatekoa honakoa izango da: 500 €.

Adin-tarte bakoitzeko proiektu bakarrari emango zaio saria. Epaimahaiak aurkeztutako proiektuen artean nahikoa kalitate ez dagoela ikusiko balu, saria ez ematea erabaki dezake.

4. Proiektua nola aurkeztu: baldintzak, epeak eta modua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Proiektuak aurkezteko epea deialdia egiten den egun berean hasi eta apirilaren 6ra arte luzatuko da. Proiektuak posta elektronikoz bidaliko dira gerediaga@gerediaga.eus helbidean.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Harremanetarako datuak: izen-abizenak, telefono zenbaki bat eta helbide elektronikoa.
- Ikerketa edo sormen lana bera
- Eskatzailearen NANaren fotokopia, eta taldeen kasuan, ordezkariaren NANA eta taldekideen izen-abizenak eta jaiotza-urteak.

Eskatzaileak eginiko eskabideak akatsak balitu, horiek zuzentzeko 10 eguneko epea emango zaio, jakinarazpena bidaltzen denetik.

5. Balorazio irizpideak

Balorazioa egiteko orduan, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

- Proiektuaren kalitatea
- Gaitasun berritzailea eta originaltasuna

6. Epaimahaia eta jarraipen batzordea

Epaimahaia 3 kidez osatuta egongo da, Gerediaga Elkarteak izendatutakoak, Durangaldekoak eta gazteak: Iruri Altzerreka Martinez (Zuzenbide ikaslea), Helene Sanchez Zelaia (Bioteknologiako gradua) eta Liher Larrañaga Gabiria (Ikus-entzunezko

komunikazioa)

Oinarrien interpretazioaren harira, sor daitekeen edozein zalantza, epaimahaiak argituko du. Proposamena egiterakoan edozein zalantza, idatziz bidali eta idatziz erantzungo da gerediaga@gerediaga.eus helbidean.

7. Datak eta epemugak

- Urtarrilaren azken astean: Deialdiaren argitaratzea.
- Apirilaren 6an: Lanak entregatzeko epemuga.
- Apirilaren 19-24: Epaimahaiaren erabakia eta irabazleei jakinarazpena.
- Apirilaren 30ean: Lan sarituen aurkezpena Ikerlari Gazteen Topaketan.

8. Ebazpena eta jakinarazpena

Bidalitako eskariak aztertu ondoren, epaimahaiak adin-kategoria bakoitzetik lan bakarra aukeratuko du.

Epaimahaiak hartutako erabakiaren kontra ez da egongo alegaziorik aurkezteko aukerarik.

Jakinarazpen prozesua sinpleago, azkarrago eta errazagoa izateko, erabakia telefonoz edo emaniko posta elektronikoa jakinaraziko zaie eskatzaileei. Irabazleek sariari uko egin ahal izango diote.

Lehiaketaren irabazlea prentsa bidez ere jakinaraziko da ondorengo datetan.

9. Sariaren ordainketa

Sariketa egunean, apirilaren 30ean, categoria bakoitzeko irabazleari, edo talde irabazleen kasuan taldeko ordezkariari, banku transferentzia bidez emango zaio saria.

10. Lanaren zabalkundea

Deialdi honetan parte hartzeak, eskatzaileak honako zabalkunde baldintzak onartzen dituela esan nahi du:

- Gerediagak, onura gabeko asmoz, edozein formatutan (paperean edo digitalean) argitara ditzake saritutako lanak.
- Gerediagak saritutako lanen irudiak erabil ditzake, zabalkunderako webgune, sare sozial edo argitalpenetan, beti ere, lanaren jabetza aipatuz.

Aurkeztutako proiektuaren jabetza intelektualari buruzko erreklamaziorik egongo balitz, proiektua aurkeztu duen pertsona izango litzateke horren erantzule.

11. Datuen babesa

Europako Legebiltzarreko eta 2016ko apirilaren 7an Kontseiluko UE 2016/679 araudian jasotakoarekin bat Gerediaga Elkarteak jakinarazten du, Pribatutasun Politika onartuz, lehiaketara proposamena aurkeztuta, baimen informatua, berriazkoa, librea eta agerikoa

ematen zaiola Gerediaga Elkarteari emandako datuak tratatzeko.

Datu hauei indarrean dagoen legearen segurtasun neurriak, neurri teknikoak eta antolakuntza neurriak aplikatzen zaizkie. Ez zaie daturik utziko hirugarrenei, legeak agindu ezean.

Datuen tratamendu arduraduna, Gerediaga Elkartea da. NIF zenbakia G48113153, egoitza soziala Larrasoloeta 3, 48200 Durango eta kontaktuko posta elektronikoa: gerediaga@gerediaga.eus

12. Oinarrien onarpena

Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla lehiaketa honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.